



Dominique Dufau

1880-1956

BIDeGILEAK

Egilea:

Henri Duhau



DOMINIQUE DUF AU

(1880-1956)

Gerlari ohia, Estatu aginduz. Euskaltzalea, bere aburuz

NOTARIO EUSKALTZALE SENPERTARRA

Gaur dakigunaren arabera guziz goresgarria gelditzen da Dominique Dufauk Euskaltzaleen Biltzarrean, XX. mende hastapeneko euskal elkarte nagusian, egin zuen lana. 1926an elkartekide sartu zen eta 1931 diruzain ezarri zuten. Zendu zen urtean, hona zer zioen Louis Dassance elkarteburuak 1956ko Euskaltzaleen Biltzar egunean:

Dominique Dufau, senpertarra, hogoi urtez goiti batasunaren diruzain izana; ororen adixkide nahi zena eta orok maite

zutena, hain zen izpiritu argi eta esku zabalekoa, eskuaraz ala erdaraz berdin izkiriartzaile pollita eta ixtorio kondatzaile paregabea. (Ikus 1956ko irail-urriko *Gure Herria*, 292. orrialdean).

Louis Dassancekin ongi antolatzen zela ez da dudarik, hogei bat urtez elkarrekin lan egin dute eta bien arteko harreman onen lekuko hor ditugu eskuan gutunak.


Orokorki erran dezakegu diru biltzaile eta beraz kide biltzaile ona izan dela Dominique Dufau Euskaltzaleen Biltzarrean.

Alta bada, goresgarria da are gehiago gizon hau, bere notariotzako lan ofizialean,



Senpereko kofradien araudiak bi hizkuntzetan paratu zituelakotz, euskarari emanez frantsesaren leku ber-bera.

Ez gara guti harritu aurkikuntza hori egin dugunean! Zer atsegin ezin erranezkoa! Egitate eredugarria baita hau zinez, elebitasuna ageri ofizialetan erabili behar litzatekeela heiagoraka ari garen euskaltzaleentzat.




Euskaltzaleen Biltzarra. 1929ko argazki famatua, ez bere kalitatearen aldetik baina hor daudenengatik. Ezkerretik eskuinerat: Jean Etchepare (Iparraldeko idazle nagusitzat daukaguna), Jean de Jaureguiberry medikua, Jean Baptiste Dhiriart diruzaina, Jose Eizagirre Aiestaran tolosarra (Dufauren portreta egin zuena), Louis Dassance Euskaltzaleen Biltzarreko burua, Maurice Amestoy, Jean Elissalde apezka «Zerbitzari», Maurice Souberbielle, Jules Moulier apezka «Oxobi» eta Dominique Dufau

Kofradia horiek ziren, «Jondoni Petri lagungarria» (Olaso 1927) eta «Jondoni Joani lagungarria» (Urguri 1930) deituak, molde ber-berean eginak. Biak osoki publikatuak dira *Dufau bi anaia* deitu liburuan (Elkar 2007), baina hemen agertuko dugu bakarririk Jondoni Petri lagungarriaren *kopia autentikotik* zenbait orrialde, zeren eta dokumentu honetarik baikenen abiatu eta gero miaketa jarraiki baikenuen eta notariotzan aurkitu delako «jatorrizkoak».

Gaur nahi dugu omendu *kopia autentiko* horren ekarlea, zeren horren egitatea gabe beharbada nehoiz ez baitzen jakinen Dufaturen lan goresgarri horren berri...

2005eko uztailaren 22a zen Andde Harisgain Gaxintorenekoak eskuatarat eman zigularik delako akta famatua, eri zela jakinik ikusterat joana gintzaizkion aldi batez. Gure harritzea halako dokumentuaren aitzinean! Berehala eskaneatu nuen eta igorri Andres Urrutia euskaltzainburuari, hark galdeginik ari bainintzen Dufauri buruzko lanaren egiten.


Zorigaitzez deitoratu behar dugu ere orain aipatu dugun eritasun horrek ez diola bar-



Andde Harisgain (1939-2007) Gaxintoreneko semea. Ogibidez armadan, baina ez osoki bere nahiz; bertzeak bertze, gertatu zaio Frantziako lehendakariaren *Elysée* palazioaren zaintzea! Baina jakingarri dena da Panpi Erremundeguy senpertar euskal preso ateratu zelarik Parisko presondegi batetarik, ohi bezala gauerdi alderat, Andde Harisgain han zela bere herritarrari ongi etorri beroa egiteko

katu eta gutartetik eraman duela denek *Gaxinto* deitzen genuen adiskide hain lagunkina joan den urtean.

Euskarazko artikuluetan bazuen Dominique Dufauk berezitasun bat: «EUSKUAL...» idazten zuen gehienki; itsusia bezain ohargarria da: begientzat itsusia baina



Gixonkienea: Ameriketatik itzuli ondoan hau izan zen Dufautarren etxea. Dominique eta Alexandrine Mexikon sortuak ziren 1880an eta 1881ean, baina, azkena Christophe hor, Gixonkienean, 1888an.

Hona orduko argazki batean, ezkerretarik bizitegia; eskuinaldean borda eta bordaren aitzinean notariotza, *vérand*a gisako emendakin batean baina murriz altxatua; hor zuen Dufau notarioak bere lan tokia.

Geroztik emendakin bitxi hori kendu zuten

Hegoaldeari buruzko irekidura baten seinale garbia ere da denbora berean! «Euskadi» xuxen idazten zuen haatik beti, hainbatetan goraipatzen ere zuelarik, bertzeak bertze, «Euskaldun emaztea ohiduren be-

girale» deitu artikuluan. Hor pasarte biziki hunkigarriak aurkitu ditut, orduko pentsamolde batean oinarrituak badira ere zenbait. Erdarazko lanetan oraino garbikiago agertzen zuen bere abertzaletasuna.

«Euskadi» hitzaz izendatzen dituzte orain zenbaitek Hegoaldeko hiru lurralde autonomoak, baina Dufauk Euskal Herri osoa edo «Zazpiak bat» adierazten zuen horrela. Hots, Dominique Dufauren aber-tzaletasuna ageri-agerian dago.

HAREN BIZIKO URRATS GARRANTZITSUENAK

Mexikon sortua zen Dominique Dufau, 1880ko maiatzaren hamaikan, Zacatecas hirian, San Agustin karrikako laugarrenean.

Haren aitak ere Dominique Dufau zuen izena, semeak bezala. Merkataria zen. Ama berriz, Jeanne Marie Oxandabaratx. Dufauren guraso horiek Ameriketara aberas-tuak ziren.


Aitaren aita-amak ziren: Auger Dufau eta Marie Engracia Oxoby; amaren aita-amak: Jean Oxandabaratx eta Catherine Hirigo-yen zirelarik.

Dominique Dufauk, gaur hemen omen-tzen dugunak, bazuen anaia bat, Christo-phe eta arreba bat ere, Alexandrine; biak batean, geroxago, aipatuko ditugu.



Hona soldadutzatik Dufauk igorri gutun airos bat. 1902koa da eta aski ederki erakusten du gizon jostakina zela eta marrazkilari ona. Goraki dio oso nardagarria zaiola horko bizia...

Senpereko notario izan zen 1911tik 1941-erat. Notariotzako bulegoa bere etxean zuen Gixonkienean, etxe aitzinean, behe-raxago bide bazterreko etxe ttipitto horri kontra eraikia zuten aterbe berezian. Idaz-kari izan zuen Mixel Audiot ainhoarra.



Argazki bitxi hau berriz, Dominique Dufauk berak egina eta Maite Maniort abokatuak bidali diguna.

Bi argazki elkarri lotu dituzke eta ondorioz pertsona berak dira bai eskuinean eta bai ezkerrean.

Bi emazte ordenaz aldatu dituzke erakusteko bezala bi argazki badaudela!

Hor ere ikusten da Dufauk dohain anitz bazeuzkala eta denbora berean bere gogo jostakina erakustea gustatzen zitzaiola; eta, dakusagunez, ez bakarrik soldadutza denboran baina adinetarat heldu ondian ere

Bere ikasketak bururaino eramanez, soldadutza ere egin zuen Baionan eta, eskuan dugun gutun batean, etxekoei idazten die zein nardagarria zaion militar bizitza hori. Marrazkilaria zen eta preseski gutun ho-

rretan erakusten digu bere jeinua. Musika-zalea ere zen, alta, ez bere anaia bezainbat baina musikari ona halere eta gaur oraino orhoit dira karrika nagusiko senpertar batzuk Dufau entzunik flauta jotzen ari.

GERLA HANDIAREN IRABAZTEAK FRANTSESTU EZ ZUENA

1914-1918ko Gerla Handia egin zuen, burutik buru. Gerla hori bukatu baino zenbait hilabete lehenago aita galdu zuten urte horretako gripa helde bortitx hartan. Ordutik, kasik egunero, idatziko die bere etxekoei, ama eta arrebari, bai eta bere anaiari, gerlan dena hura ere. Eskuan ditugu gutun horietarik 30 bat eta jakin behar da guziz ederrak direla guziak, zinezko idazle batek bezala isurtzen ditu hitzak, gauza bertsuak errepikatuz baina beti desberdinki itzulikatuz.

Bihotz handiko gizona agertzen zaigu hori eta fededuna. Gutun horietarik batean aipatzen digu ere Jean Ybarnegaray, jadanik famatua bilakatua zenaren ezagutzak egin dituela eta elkarrekin Euskal Herriaz mintzo direla gerla lekuetan izanik ere. Ordea, Iparralde honek ezagutu duen politika gizon puxantenetarik bat den horrengandik urrunduko da 1937an, Hegoaldeko iheslariak laguntzeko, geroxago ikusiko dugunez.

Senpereko gerlari ohien buru ere egonen da luzaz. Mila aldiz errepikatu izan zaigu eta egia dateke 1914-1918ko gerla mundialak handizki frantsestu gintuela gu Iparraldeko euskaldunak. Baina Dufauk —Jean Barbier erretora, euskara mailan gorago zena, errotik alde zukeela— jakin zuen euskaldun egoten: euskaltzale eta abertzale agertuko baitzaigu gerla ondoan. Ikus, bertzeak bertze, *Senpertar suan ibili Soldadoen Batasuna* eta *Laborarien Sindikata* paperak zein ederki euskara hutsez ezarri zituzten 1919an.

Senpereko auzapez egon zen 1919tik 1935erat. Berak ez zuen beretzat «auzapez» erraten baina «baldarnapez». Hitz hori Senpereko inguruetan erabiltzen zela badakigu zeren eta harrian zizelkaturik baitago bizpahiru lekutan berderen. 1919an, supituki bezala hil zen Paxkal Lahetjuzan auzapeza 27 urtez kargu hori ohorezki bete ondoan. Auzapeza zendurik, kontseilua osatu behar zen berria hautatzeko. Orduan zen sartu Herriko Etxean Dufau. Baina gero, kontseilariak beren artean auzapeza hautatzeko orduan, Dominique Dufau eta

Union Nationale des Combattants

Sempertar suan ibili Soldadoen Batasuna

1^{er} ARTIKULUA. — Batasun bat egin da Sempertar suan ibili soldadoen artean, elgarren laguntzeko : 1^{er} soldado ohi bezala dituzten dretxoetan ; 2^{ik} bere eta familiako eritasunetan.

ART. 2. — Batasun hortan sar ditazke : 1^{ik} suan ibili soldado guziak, klasa 1918 barne, edo bederen suko aldean, " Secteur Postal " bat zuten guziak ; 2^{ik} aita edo ama, beren semeak suan, edo ospitaleetan, suan bildu kolpe edo gaitz batetarik galduta dituztenak ; 3^{ik} alargunak, beren senharrak gisa berean galduta dituztenak.

ART. 3. — Soldado ohi batek sar-araz dezazke batasun hortan : bere andrea eta haurrak, bere aita amak, bere haurrideak 16 urtez azpikoak.

ART. 4. — Urthe bakotx, kondizione horietan direnek, eman behar dituzte 3 libera, kartiereko komisarioari. Paga hori emaiten ez duena, batasunetik kampo da, eta ez ditake goza batasunak eman detozken abantailak.

ART. 5. — Huna Sempertar soldadoen Batasunaren abantailak : 1^{ik} eritasunetan, jaun mirikuaren bisitak urririk dituzte ; 2^{ik} mirikuak manaturikako erremedioak urririk, nua ez diren hamar liberaz goitikoak, gaineratekoa berek pagatu behar dute ; 3^{ik} haur izateetan, jaun mirikuaz baliatzen direnei, batasunak emanen diozkate 10 libera.

ART. 6. — Herriz kampak miriku bat ekhar-arazten duenak, beharko du egin-arazi, bisita aldi guziet, ageri bat miriku harren sinadurarekin, eta ageri hura hel-arazi zortzi egunik barnean, batasuneko sekretarioari.

Batasunak pagatuko dio, konduktako egunean, herriko mirikuak paga-araz lezokeena gaineratekoa bere gain.

Erremedioak, herriz kampak botikarioetan hartzen dituenak, behar du egin-arazi botikarioari ageri bat, eta gisa berean hel-arazi sekretarioari.

ART. 7. — Batasuneko anaia bat hiltzen denean, kartierreko anaiek behar dute enterramenduan aurkitu : 1^{ik} suan ibili soldado bat balin bada, kartierreko soldado guziak ; 2^{ik} 15 urthe artinoko anaientzat, kartierreko haurrak, etche bakotxetik bat ; 3^{ik} 16 urthez goiti, kartierreko bertze presuna larriak, gisa berean.

Enterramenduan aurkitzen ez denak, arrazoinik gabe, pagatu beharko du hogoi sos amenda. Kartierreko komisarioa kargatua da kapita khurri-arazteaz, khasu egiteaz nor ez den enterramenduan, eta amanda horren sosaren biltzeaz.

ART. 8. — Batasuneko membroak bilduko dire urthean behin bederen, Phazko astelehenean. Zerbitzu bat emana izan da, herriko elizan, gerlan hil soldadoentzat, eta batasuneko anaia hiltentzat. Meza ondoan, bilkura egingen da Herriko-etehean : urtheke kondus egingen dire, kartieretako komisarioak izendatuko.

LABORARIEN SINDIKATA

1^{er} ARTIKULUA. — Suan ibili soldadoek egin dute laborarien laguntzeko syndika edo konfardia bat.

ART. 2. — Konfardia hortan sar ditazke Sempereko laborari guziak, konfardiako buruzagiek onhartzten badituzte.

ART. 3. — Sartzean eman behar dire berrogoi sos.

ART. 4. — Syndikatak ekhar-araziko ditu, fabriketarik direktuki, laborantzako behar diren onkailu, hazi, tresnak, ahalik eta merkeenik.

Batasun eta konfardia hauk eginak izan dire, Semperen, 1919^{as}, gerla haundia akhabatu zelarik. Sempertar soldadoek bete dute bere eginbidea ederkiki : joan ziren 400 ; pasatu zituzten 4 urthe gerlan ; 72 Sempertar hil ziren ; kolpatu 200 ; gerla akhabatu zen 1918^{an}, Hazilaren 11^{an}, San Martin egunean.

Soldadoek hautatu zituzten bere buruzagi : Dufau Dominique, Gichonkieneko premua notarioa ; Larrea Pierre, Munteiko nausia ; Larrea Désiré, Muntegiko semea ; Bonnet Antoine, Ottoloeneko premua ; Dokhélar Charles, Artzirin Etehegarako premua ; Camblong Auger, Aspeltzeko semea ; Donetch Jean-Baptiste, bikarioa.

Hautatu zituzten ere Herriko jaun erretora, Jean Barbier ; Alexis Dourisboure, jaun mirikua ; Adolphe Audiot, garden kapitain chaharra.



IMP. M. TARTET, 27-JULIEN-DE-LA-ROCHE.

Alexis Dourisboure lehia bizian gertatu ziren. Lehen bozka itzulian biek boz kopuru bera lortu zuten, zazpina boz ; bigarren bozkaldian Dufau nagusitu zen boz batez eta hola sartu zen Sen-

pereko auzapez eta kargutan egon 1935a arte, orduan utzi baitzion lekua, lehena-go baztertu zuenaren semeari, Gratien Dourisboureri... Arrebantxa bat izan zela ez da dudarik!



Senpereko jaunak armarioak gaur Herriko Etxearenak eta herriarenak ere bilkatuak direla erran dezakegu. Ohargarriak dira euskarazko hitzez jantziak direlako, «BORTITZ ETA ON» Senpereko gazteluko jaunak gaskoinak zirelarik alta!

Xehetasun hau ekartzen dugu hemen: Gratien donadoa zen baina etxean ilobak bazituen eta haiei debekatua zitzairen euskaraz egitea eta ez dute euskararik ikasi. Haatik, erantsi behar dugu ere iloba horien haur batzuk, gaur egun, ikastoletan dabilzala.

Dena den, Dufau eta Dourisboure bi familia handi horien arteko zeingehiagoka ez da horretan geldituko. Dufauk auzapez kargua utzi bazuen 1935ean Senpereko gorabeherak eta hauteskundeak segitu baitzituen hurbildik gerla ondoan

ere eta bereziki 1953an. Urte horretan bi talde lehia gorrian jarri ziren eta alderdi bat hautatu zuen deblauki Dufauk, bera zerrenda batean aurkeztu gabe, haatik. Zeingehiagoka bortitza izan zen: batzuetan, elkarren auzo eta adiskide minak zirenak etsai amorratu bilakatzerainokoa eta, bidenabar, Dufauaren omena ere zikindu zuten.

Horiek guziak, parte bederen, hauteskunde sistema tzar batengatik; gatazka etengarri horiek sekulako makurrak eragin dituzte gure herrietan.

Egungo egunean dukegun desafio edo erronka bakarra dateke gure euskal nortasunarena: izan edo ez izan!

ELIZATIARRA «GORRI» BATEKIN EZKONDU...

Bestaburuetan, elizan, buruzagien aulki berezian ezartzen zen Dufau. Senper tar batzuk orhoit dira oraino ere ikusirik bera erdian, eskuinean Amotz Hettoko nagusia Xemartin Brave, lehen axuanta eta ezkerrean Aspeltzeko nagusia Piarres Camblong, bigarren axuanta.



1922ko Bestaberri Senperen. Hona delako argazki haietarik bat, Senpereko zenbait etxek oraindik ere daukatena.

Parte hartzaileen izenak ere bada andana pollita bildurik; ikus *Dufau bi anaiak* liburuan. Baina hemen dagoen berezitasun handia da gizonak euskal makilarekin direla eta ez armekin edo fusilekin! Hori da zinez ohargarria. Baxenabarren fusilekin zebiltzan Bestaberriz eta, iruditzen zaigu Dufauren ekarpena badela hor eta ez tipia, biziki atxikia egon baita bere bizi guzian euskal makila bereziari gure nortasunaren ezaugarritzat baitzeukan

Itxura guzien arabera arta berezi batekin antolatu zuketzen Herriko Etxeak eta parrokiak 1922ko Bestaberri eguna. Argazki guziz ederrak atera zituzten segurik.

Herriko Etxean bere idazkari zuen Martin Donetch uztariztarra (Jean Baptiste bikarioaren anaia), Arretxean mutikoen eskolako errient ere zena denbora berean. Martin Donetch Euskaltzaleen Biltza-

rrean zen Dominique Dufaurekin. Baina Donetch irakasle lanetik baztertua izan zen sobera euskalduna zelakoan omen eta Saint-Bois frantximent batez ordaindu zuten. Beha ondorioei: Barbier erretrazendu 1931an, Martin Donetch baztertua irakasle lanetik 1934an bai eta Herriko Etxeko idazkaritzatik, Dufau auzapezgotik baztertua izan zelarik 1935ean. Ordu-tik, erran daiteke, Dufauk Senperen ireki

Aitzineko argazkiaren zati bat, lau gizon guziz garrantzitsuak biltzen dituen. Ezkerrean buruhas, Jean Baptiste Donetch, bikario zena orduan Senperen; gero Arnegirat joan zen erretor, sekulako fama bildu baitzuen azkenean, Euskal Herri guzirat hedatu zena.

Gero hor dugu Jean Barbier erretora; hau berriz Iparraldeko apez ospetsuenetarik bat dugu, elizako ala elizaz kanpoko kantu guziz ederren egilea; supituki bezala hil zen 1931an, 56 urtetan. Gero Dominique Dufau eta honen anaia Christophe



bideak gainbeherako bat gaitza egin zuela eta urteak igurikatu beharko direla euskaltzaleek eta abertzaleek berriz buruak altxatzen hasi arte.

1928an «Conseiller d'Arrondissement» kargua lortu zuen Dufauk hauteskunder, *Eskualduna* astekarian ikusi dugun bezala (1928-10-28). Institutzio hori desagertu bide zen gerla ondoan, IV. Errepublika sortzearekin.

Ezkondutako Senperen, 1931an Angèle Laffitte Barberarenekin. Ezkondu eta bere emaztearen etxean biziko da. Emazte honek bazukeen Piarres Laffitte jakintsu handiarekin ahaidetasun zerbeit, deiturak ez badu arraz grafia bera ere, hala irakurtzen da Serge Monier jaunak idatzi liburuan: *Le Père Laffitte: entretiens, souvenirs*, 33. orrialdean; hona gure itzulpena:

Piarres Laffitte: Laffitte izeneko apez batek bataiatu ninduen, Luhuson. Sortzez senpertarra zen. Bitxia dena hau da: ene aitak «Aitatxi» erraten ziola eta beraz ahaide ginatkeela. Apez hori beraz Senperekoa zen, apezaren etsai zeuden Laffittetarren familiakoa. Eta apez hori hil zenean bere iloba neskak haren ehorzketetarat etorri ziren arropa gorritz jantzirik. Geroago, andere horietarik bat mintzatu dut, Dufau notarioarekin ezkondua zen eta, haiekin biekin jan nuen batez, erran zidan ahaidekian izan behar genuela, nahiz ez zuen argitu ahal izan nola. Arropa gorritan azaldu ziren bi neska haietarik bat zen, baina berdin du.



Barberarenean, ezkondu eta Dufauren sukaldea. Bere emaztea Angèle irakurtzen ari. Ohar daiteke liburuei bistan dena baina ere zurezko ate landuari han bizi denaren musikazaletasuna orhoitarazten baitigu. Eta «ate xokoan makila», kantuak dioen bezala, ez baitzen hura gabe nehoiz ateratzen etxetik...

Berant ezkondu zen 51 urte zituenaz gero, haurtzarotik ezagutzen zuenarekin (auzo ziren-eta), baina andregaia «gorrien» gotorlekuko alaba bat zelakotz, ingurukoen onespénik gabe, goizeko 6etan, alargunek egiten ohi zuten bezalaxe, erdi gordeka. Gorrien buruzagien etxekoa eta xurien buruzagiaren ezkontza ez ahal zen guti harregarria izan gure herrian!

Irudi luke bere «sinesteetarat» bildu zuela emaztea, eta, ondorioz, xurien eta gorrien arteko gerla jabaldu zela Senperen: ez baita hori Dufauk herriari egin dion

ekarpenik ttikiena. Bere auzoan bazuen bertze «gorri» bat ere, Bernard Elisseche goi mailako irakaslea. Harekin maiz eztabaidan ari zen baina beti adiskide geldituz halere. Elisseche horren artikulua eder bat bada *Gure Herria* aldizkarian Senpereko oihanaren historiaz, «Le gouvernement des etxeko jaun à Saint-Pée-sur-Nivelle» deitua. (Ikus *Gure Herria*, 1954 abendua). Gorria zen Elisseche baina gorri irekia, moderatua, Iraultza aitzineko Lapurdiko Lege Zaharrak ez zituen batere gutiesten. Dufau ere, xurien artean tinko dago baina gizon moderatua da hau ere.

EUSKAL IHESLARIEN LANGUNTZAILE

1937ko ekainean, Bilbo frankisten pean erori zenean, handik etorri ziren iheslarien laguntzeko elkarte bat sortu zuten Iparraldean «Comité Catholique d'Accueil et de Répartition» deitua. Buru, Henri Jean Houbaut Baionako Jaun Apezpikua; buruorde, De Souhy, kontseilari orokorra, Maule; Louis Inchauspe, kontseilari orokorra, Donibane Garazi eta Goyheneche kontseilari orokorra, Uztaritze; idaz-



1930-07-10. Argazki arraroa hau ere, Peio Jorajuriak *Herria* astekaritik bidalia. Jean Saint-Pierre milafrangarra, *Eskualdunaren* zuzendari zelarik Kartagoko apezpiku izendatu zuten, hangoaren laguntzaile gisa. Orduko euskaltzale handienetarik zirenak bildu ziren eta kargu horri zihoakion «gurutze berezia» eskaini zioten Baionan. (Ezkerretik eskuinerat). Xutik: Istillart, Goyeneche medikua, Paris, Miguel d'Arcangues, Dominique Dufau (Senpereko auzapeza), Pierre Duhour, A.Larrieu, Othaetche (?) apeza, Olhagaray apeza, Piarres Lafitte apeza, Jean Barbier apeza (Senpereko erretora). Jarririk: Dirassar apeza, Elissalde apeza «Zerbitzari», Constantin medikua, Jean Saint-Pierre apezpikua, Souberbielle medikua, eta Fagalde

kari, Louis Dassance inginadore agronomoa, Uztaritze. Kideak, bertzeak bertze: Dominique Dufau, notarioa, Senpere. Ikus horretaz Jean Claude Larronde historiazalearen liburuan, *Eskualerri-zaleen Biltzarra*, 262. orrialdean.

Azpimarratzekoa da Dufauren parte hartzea elkarte honetan, dakigularik goraxago aipatu dugun eta adiskide zuen Ybarnegaray ospetsua errotik bertzalderat jokatu zela.

Euskaltzain urgazle egin zuten Dominique Dufau, 1953an Paul Guilçou bertze senpertar batekin batean. Ikus *Euskera* XVI, 1971, Bilbao, 252. orrialdean.

Senperen hil zen, 1956ko urtarrilaren 6an, supituki bezala. Ehorzketa handiak egin zizkioten Euskal Herriko apez, euskaltzale, herritar eta adiskide talde gaitzak parte hartzen zuela. Eliz-hilerrietan, Charles Cami orduko auzapezak egin zion azken agurra.

DUFAUREN IDAZKI LANAK

Aldizkari eta beste	Noizkoa	Z.	Titulua
<i>GURE HERRIA</i>	1924-04 1928-08 1931-09 1932-05 1932-11 1933-07 1936-01 1950-03	4. 8. 5. 3. 6. 4. 1. 2.	La vieille confrérie d'Amotz Vieux contrats eta Cure de Haltsou En glanant... Vieux registres et papiers En glanant... Vieux registres et papiers En glanant... Vieux registres et papiers En glanant... Vieux registres et papiers La Basquaise et les traditions Euskaldunaren funtsa
SENPEREKO NOTARIOTZA	1927-04 1930-01		Mutuelle-Assurance St-Pierre/Jondoni-Petri Lagungarria Mutuelle-Assurance St-Jean/Jondoni-Joani Lagungarria
(1)	(1)		Euskaldun emaztea, ohiduren begirale
ANTZERKIGINTZA			Etxeko Andere (2) Juan etorri bat Senpererat (2) Xemartinen xerri loteria (3)
<i>EUSKO JAKINTZA</i>	1947 1947 1949	1. 2. 3.	Senpere, Histoire anecdotique Senpere, Histoire anecdotique (suite) Saint-Pée et Sare sous la Révolution Française
<i>GERNIKA</i>	1949-04 1949-07 1949-12 1950-01 1950-01 1950-07 1950-10 1951-03 1951-04 1952-03	7. 8. 9. 10. 11. 12. 13. 14. 15. 18.	La Basquaise et les traditions Ilunduratik argirat Garruzeko Eguna L'euskara et Rabelais///Eguberri Amaxo Ganixen makila Ganixen ordainbidea Ikas euskara Ezkurra Noe-ren Arka
<i>AGUR</i>	1954-06 1954-12 1955-02 1955-04 1955-07 1955-09 1955-10 1955-12	5. 8. 9. 10. 11. 12. 13. 14.	Bi pilotari Eguberri/Noël Anjelus Angélus Esquisses basques///Chants, danses, irrintzina Etxeko arnoa/Le vin de la maison Gapelua/Le béret Euskaldun zirtoa/Humour basque

(1) Euskaltzaleen Biltzarreko paper laxo batean aurkitu dugu; idazkiak «1936» urtea dakar baina, Dominique Dufau-ren gutun baten arabera, 1948koa da *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*-en publikatzeko egina.

(2) Ikus Piarres Larzabalen artikulua, «Eskuarazko teatroa», *Gure Herria*, 1955, 373. orrialdean: «Dominique Dufau, Senpereko Jaun Notaria, bazinakitena teatrolari zela? Baditu gure jakinean, bi lan moldatuak, askitto finak: Etxeko Andere eta Juan etorri bat Senpererat.»


(3) Testua eskuan dugu.

NOTARIO HONEK BI KOFRADIREN ARAUTEGIAK FRANTSESEZ ETA EUSKARAZ EZARRI ZITUEN

Dominique Dufauk, 1924ko *Gure Herria*-ren zenbaki batean egin zuen artikuluan Senpereko hamahiru kofradia aipatzen dizkigu. Kofradia horien arautegi batzuk berritu zituzten, hain xuxen, Dufau Senperen notario zelarik. Adibidez Ibarrungo kofradia, «Saint-Michel» deitua erdaraz gelditu zen baina ondoko urtean, 1927an, Jondoni Petri-rena bi hizkuntzetan eman zuen. 1926an, Euskaltzaleen Biltzarrean sartzeak bere eragina izan zukeela asma daiteke errazki... Geroxeago ere, 1930ean berriz bertze kofradia arautegi bat bi hizkuntzetan paratu zuen. Ohargarri da *statuts* hitza euskaratzeko *bitezardeak* ezarri duela (*bitezardeak* edo *kondizioneak*, xuxen errateko).

Hona zein diren delako bi arautegi elebidun horiek:

— *Statuts de la Mutuelle-Assurance Saint-Pierre/Jondoni Petri Lagungarriaren bitezardeak* (Olaso 1927).







Dominique Dufauren marrazki lan ohargarri bat bertze askoren artetik *Gure Almanaka*-ren azala apaintzeko egina

— *Statuts de la Mutuelle-Assurance Saint-Jean/Jondoni Joani Lagungarriaren bitezardeak* (Urguri 1930).

Xehetasun ttiki bat hasteko. Lehengo kontratuetan badira bi mota:

— bata, «jatorrizkoa», partaide guzien sinaturekin, notariotzan gelditzen dena;



Texte français

*Conting 7.
Ody*

maison Elizabidea. -----
M. Jean-Pierre SAINT-JEAN, propriétaire
-re cultivateur, demeurant à St Pée sur Ni-
-velle, quartier d'Urgury, maison Chalda-
-renea. -----
Lesquels, en vue de la ~~constitution~~ et
constitution d'une assurance mutuelle contre
la mortalité du bétail, en ont établi
et arrêté les statuts de la manière sui-
vante: -----
-- Article premier --
Il est formé entre les ci-dessus et
toutes les personnes qui adhéreront aux
présents statuts une Société d'Assurances
Mutuelles, ayant pour ~~but~~ objet d'indem-
niser les sociétaires de la perte ou de la
dépréciation des animaux assurés, mais
seulement pour cause de mort, maladie in-
curable, blessure ou sinistre. -----
-- Article deuxième --
La Société a son siège à Saint Pée
sur Nivelle, au quartier d'Oihasso; -----
Elle est dénommée "SAINT-PIERRE". --
Elle assure les taureaux, bœufs,
vaches, génisses, bouvillons, veaux, à la

Texte basque H-56541



ren egoten dena Elizabidean. -----
Jean-Pierre SAINT-JEAN, latoria,
Semperen egoten dena Chaldarenean. -----
Zoinex, azizien konfraria baten
egindura bati buruz, ezarri baitituzte
bitezardeak edo kondizioeak gisa huntarat:

-- Lehen artikulua --
Egina da, gorago izendatuak diren
Jaunen artean eta edozein presuna kondizio-
ne hau onhetsi nahi dituztenen artean, la-
gungarri bat, azizientan gertatuko diren
bidegabe, domai edo mendretasunen pagutzeko,
bainan haatik, lagungarri huntan sartuak
izanen diren alimalen malura behar ekharri
heriotzeak, ezin sendatzuko gaiz batek,
kolpe edo ichtripu batek. -----
-- Bigarren artikulua --
Lagungarri hunen egoitza da Semperen
Oihasso-ko kartier edo etchealdean; -----
Izendatua da "Jondoni-PETRI". -----
Seguratzon ditu zezenak, idiak, behiak,

Troisième rôle.
Ody

Texte français

condition que le bétail réside dans les
quartiers d'Oih, d'Oihasso et d'Urgury --
-- Articles troisième et quatrième --
La Société sera administrée par un
Président qui remplira en même temps les
fonctions de Trésorier et par quatre Com-
missaires. -----
Ils sont élus pour un an, mais le
Président est rééligible. Les fonctions
de Président Trésorier sont rétribuées
SIX CENTS francs pour frais divers. -----
Celles de Commissaires sont gratui-
tes et sont dévolues par roulement entre
les Sociétaires. -----
Celui qui, sans motif sérieux re-
fuserait ces dites fonctions, serait exclu
de la Société. -----
Pour les tournées qu'ils doivent
faire pour les évaluations annales, il
leur est alloué une indemnité globale de
quarante francs. -----
Chaque année, les nominations des
Commissaires ont lieu à la majorité, à la
réunion de la Saint Blaise (trois février)
-- Article cinquième --

Texte basque H-56542



zokorrak, migak eta chahalak, bainan Oih,
Oihasso eta Urgurikoak bakarrik. -----
-- Hirugarren eta laugarren artikulua --
Lagungarri hau administratua edo era-
bilta izanen da President edo Buruzagi ba-
teak. Tresorerioa edo molterioa eginen
duena, eta lau Komisarioez. -----
Hautatuak dire urthe balentzat, eta
berritz utz liteke kargu berean President
edo Buruzagia; hunek hunkituko ditu SEI
KHUN libera urthetik frententzat. -----
Komisarioen kargua urririkakoa da
eta denek aldirka bethe beharko dute-
na. -----
Kargu hori, urrazoinik gabe, bethe
nahi ez duenak lagungarri huntarik kampo
izanen da. -----
Urtheke estimen egiteko urratsen-
tzat bereziak dire, Komisarioentzat urthean
berrogoi libera. -----
Urthe guziz, Komisarioen hautatzea
eginen da San Blas egunean, egun hortan egi-
ten den anala guzien bilkuran (otsailaren
hiruan). -----
-- Bortzgarren artikulua --


Quatrième rôle.
Ody

Notes-Documentation historique et autres. Lan hau erdaraz da baina Euskal Herriari lotua osoki Dominique Dufauren idazki lan guziak bezalaxe. «B» hizkiak hasten diren hitz hauen inguruan dabil hemen: *Bailes; Baillis; Bannalité; Bans; (Arrière) bans; Barbiers; Bardes; Barons; Basques (provinces); Basque (langue); Basse-Navarre; Bastide; Bâtards, enfants naturels; Bayonne; Bertsuak, bertsulari; Biahore; Biltzar; Bohémiens; Bourgeois.* Lan interesgarria. Bertze hizki baten ingurukorik bazenetz, ezin dugu erran segurtamenekin; beharbada 1983ko uholdeetan galdu dira zenbait bertze asko gauza bezala...

— bertzea, «jatorrizkoaren kopia autentikoa» notarioak bakarrik sinatua eta jabeari ematen zaiona eta honek berekin atxikitzen duena.

2006ko uztailaren 22an, Gaxintoreneko Andde Harisgain adiskideak digu beraz eskuetarat eman, lehen-lehenik, «Jondoni Petri» deituaren, «kopia autentikoa», Andderen aita zena, Manez, izan baitzen kofradia horren azkeneko buruzagia. «Kopia autentiko» hortarik gero errexa izan zaigu «jatorrizkorat» heltzea eta gero, hasian-hasi, «Jondoni Joani» deitu bertze kofradia horren araudiak aurkitzea ere.



Euskaltzaleentzat arautegi hauek guziz estimagarriak dira euskarari ematen dioten lekuarengatik. Alabaina, ikus deza-gun hemen, oroz gainetik, euskara frantsesaren maila berean ezarria, Senpereko



notarioak, bere eguneroko lan ofizialean. Zeren, jakin behar baita ere, lege frantsesak ez duela holakorik onartzen eta beraz debekuaren gainditzeko ausartzia izan zuela Dominique Dufauk, kontratuek fitxategi inmobiliarioan publikatze beharrik ez zuten kasuetan. Erantsi behar dugu, jakingarria baita, arautegi hau idatzi zuenean Senpereko auzapez kargutan ere zela, ez baitu horrek merezimendua ttikitzen! Ez, alafede!



Pilotaria xisteraz. Ez da aiantzi behar Senpere pilota herri handia dela eta xistera ere senpertar batek asmatu zuela 1858an, «Gantxiki» deitzen zuten batek. Gaur egun Senpereko pilotaleku berriak haren izena dakar eta aurtien ospatu dute preseski asmakuntza horren 150. urteburua



Petit dictionnaire FRANÇAIS—BASQUE; Lhande-Lafitten EUSKARA-FRANTSESA hiztegia harturik hasia zen FRANTSESA-EUSKARA egin beharrez bere gisarat. Ez du bururatu ahal izan lana «P» hizkian gelditzen denaz gero lan hau. Dagoena, halarik ere interesgarria dago osoki

Andres Urrutia Euskaltzainburu Jaunak —ofizioz notario denak— bi dokumentu horiek «historikotzat» dauzka eta dio osoki eredugarriak daudela Hegoaldekoentzat. Haientzat, oraino ere baliagarriak baldin badira, erran dezakegu zinez egintza miwesgarria burutu zuela hor Dominique Dufauk duela laurogei bat

urte eta hark euskarari egin dion ekarpen ohargarriena hor dugula, dudarik gabe.

Hemen agertzen duguna lehengo grafian gertatzen da baina nornahik gaurkotzeak eginen ditu, aldaketatxo hauek segituz:

— CH > X: ichtripu > ixtripu, probetchu > probetxu, eta abar.

«Dominique DUFAU (1880-1956) Senpereko auzapez eta notario euskaltzaleari». 2008ko otsailaren 3an, Senperen, omendaldi jendetsua, kartsua eta alaia ere bai Herriko Etxean eta ondotik, bortz lagunek egin zuten harriaren agertzea jende multzoaren aurrean. Ezkerretik eskuinerat: Andres Urrutia euskaltzainburua, Christine Bessonart Senpereko andere auzapeza, Christine Sanchette-Lannette Senpereko andere notarioa, Piarres Aintziart Euskaltzaleen Biltzarreko burua eta Henri Duhau *Dufau bi anaiak* liburuaren idazlea



— M > N: Sempere > Senpere, zombat > zonbat, eta abar.

— H kendu kontsonanteen ondotik: urthe > urte, Olhaso > Olaso... Utzi, haatik, hitz bakar batzuetan: alha (pâtre), erhi (doigt)...

— -RAT atzizkia ere uzten ahal da den bezala, euskara batuan ere onartua baita adlatiboaren forma hori; ikus *nehorat* Hiztegi batua, 671. orrialdean.

— Izen propioak utz hola-hola: Etcheverry, Olhagaray, Haramboure, e.a.

Bertzalde, ez da kontratu osoa sartu ahal izan hemen, baina agertzen dena aski adie-

razgarria dela deritzogu. Orhoit beraz, *Jondoni Petri lagungarria* deitu kofradia-
ren arautegien «kopia autentiko» honek 16 artikulua dauzkala, 24 orrialde betetzen dituztelarik. Orrialde bakoitzaren neurria 32 × 22 zentimetrokoa izanik, hizkiak oso larriak gertatzen dira eta zirrara handia eragiten die dokumentuaren ikusterat etortzen direnei. Erran gabe doa, berdin hunkigarriak direla, notariotzan ikus daitezkeen bi arautegi «jatorrizkoak» ere.



Christophe Dufau (1888-1922)

Dufau haurrideak beraz hiru ziren: Dominique, Alexandrine eta Christophe. Lantto honetan omentzen dugu Dominique Dufau eta Christophe haren anaia. Baina ez gaudeke hitz bat erran gabe beren arreba Alexandrine-z ere —Soubelet medikuaren alarguna (1881-1970)— zeren eta, Arnaud Boroira erreitorak galdeturik, emaitza ederra egin baitzion parrokiari 1960ko hamarkada hondarrean, familako ondaretik emanez lur sail zabal bat, urrik, laborantzako ikastetxe baten eraikitzeko.

Ordainez Soubelet-Dufau andereak galdatu zuen gauza bakarra izan zen ikastetxe horri eman zekiola hain gazterik

galdu zuten anaia maitearen izena. Hori beraz nola daukagun Senperen orain, Baionako bidean, eraikin eder bat «Saint Christophe» lizeoa, 2006an handitu dutena, hain xuxen, gazteriaren eta herriaren probetxurako.

Artetik errateko, gure ustez, ikastetxe horrek omendu nahi izan denaren izena oso rik erakarri behar luke: «Christophe Dufau».


Dena den, ikusiz ikastetxe balios hori batetik eta bertzetik gaurko lurren prezioak Senpereko plaza inguruetan, dudarik gabe erran daiteke, Alexandrine Soubelet-Dufau anderea, gure herriko ongi-egile handienetarik bat izan dela.

Gazterik zendu zelakotz ez dakigu gauza handirik Christophez, idatzietan irakurtuetaz kanpo. Baina idazkiak hain dira adierazkorrak kasu honetan!

Christophe, medikua zen ofizioz eta gerlan harrapatu eritasun baten ondorioz hil zen, 34 urtetan. Bere anaia bezala gerlan zelarik, ari izan da, handik, kartuki, osasun aholku ematen, xehetasunetan sartuz, bere etxekoei bistan da baina ere herritar asko kontseilatuz. Gutun horiek eskuan ditugu: denak biziki ederrak dira.

Gerla ondoan Christophe Dufau mediku jakintsua bilakatu zen, hoin gaztea zelarik alta. Bertzeak bertze, aurpegi hondatuak artatzen espezializatua zen (ez zukeen lan eskasik gerla xirixikatzaille hartarik landa) eta Parisen zelarik —han bukatu baitzituen bere ikasketak— operatzeko lokargailu berri baten aurkikuntza egin zuen anestesia alorrean. Miresgarria!

Baina mediku handi izateaz gainerat euskal musikazale handia ere zen aldi berean. *Gure Herria*-ko bilduma berezi batean, Jean Barbier ospetsuaren lanak goraipa-



Dufau bi anaiak liburuaren azala. Liburu honek, argitaratzerakoan, jaso du Zuzenbidearen Euskal Akademiaren diru laguntza nasaia Andres Urrutia Jaunaren bitartez. Eskerrik bizien-bizienak bihurtzen dizkiogu

tzerakoan, Piarres Lafittek honela zioen 1975ean:

Jean Barbier apezka Christophe Dufau jaunarekin ari izan zen luzaz euskal kantu xahar biltzen eta *Gure Herria*-n publikatzen, hitz eta musika. Berrehun bat uste dut bazituztela eskuraturik. Aita Donos-

tia eta Azkueren itsasorat ixur-arazi zuten heiek ere beren ibaitxoak, asko kantore galtzetik begiratu.

Zendu zenean, *Gure Herria*-n gain-gainetik omendu zuen Christophe; hortxe adierazten digute zer gizona, zer girstino jarraikia eta zer artista ere zen. Artikulu hori, geroxago apezpiku izanen den Jean Saint Pierre idazle eta hizlari ezin ahanztikoarena da, Euskal Museoaren arabera. (Ikus *Gure Herria*, 1922ko 12.a).

Eliz-hilerrietan eman bi mintzaldiek berri, agertzen digute gerla lekuetan zer nolako mediku paregabea izana zen: arris-

ku handienen erdian, bere bizia baino lehen ezarriz, kolpatuen artatzea eta sokorritzea. Soldado frantsesak ez zituen haatik laudatzen: alemanak baino piesago izan zitezkeela baitio gutun batean. Harri-garri ere baita gerla denborako zentsurak nola utzi zuen pasatzerat gutun hura.

Zorigaitzez, biziak ez dio utzi, Euskal Herriaren alde eman zezakeenaren erakusteko parada osorik, eman duena ez bada, nehola ere, gutiestekoa. Ageri da haren ahalen dasta bat baizik ez dugula izan; aski, haatik, haren goizegi joatea gain-gainetik deitoratzeko.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- *Dufau bi anaiak* liburuari. Duhau, Henri. Elkar, Baiona, 2007
- Laurent Astigarragari, gerlari ohien burua
- Jeanine Harisgaini, Andderen alarguna
- Daniel Landarti, antzerki lanen ekarlea
- Marijo Lévy-Otheguyri, Dufauren dokumentu berri batzuk utzi izanagatik

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2009ko abendua
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	Ipar, S. Coop. Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa:	Grafo, S.A. Cervantes etorb., 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-3018-8 (Lan osoarena) 978-84-457-3019-5
L.G.:	BI - 3.368-2009

BIDOGULEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística